# DEFIÉNDETE

# Guk,

# NAFARROA

## OINARRI POLITIKOAK

HAUTESKUNDE OROKORRAK · 2026KO AZAROAK 29

# AURKIBIDEA

1. BESTEAK DEFENDATU ETA GU GEU DEFENDATU
2. NAFARROA, SUBJETU POLITIKO
3. GAMAZADA BERRI BAT?
4. ONGIZATE ESTATUA DEFENDATU, DEMOKRAZIA DEFENDATU
5. ANIZTASUNA, BIZIKIDETZAREN ARDATZA

# 1.

# BESTEAK DEFENDATU ETA GU GEU DEFENDATU

Nafarroak datorren azaroaren 29an hauteskunde orokorrei egingo die aurre, Pedro Sánchezen Gobernuak hauteskundeak aurreratzeko erabakiaren ondoren, etxebizitzaren arazoa erronka nagusi moduan agertuz, baina ez bakarra.

Egia dena da, Estatu osoan bezala, nafarrak hauteskunde aurreratuetara goazela eta orain dela hiru urte genuen Damoklesen ezpata berberaren pean gaudela: ultraeskuinaren aurreratzea.

AEBn eta Europan ultraeskuinaren aurreratzea errealitatea da jada eta erakunde nagusienetako askora iritsi da, orain espainiar Gobernu Zentralera modu argian hurbiltzen ari delarik, behin Alderdi Popularrak horren presentzia, Vox-en presentzia alegia, erkidegoetako gobernu ugaritan finkatu ondoren.

Egia da, bai Estatuan eta bai Europan ere, ultraeskuineko korronte edo formakuntzen aurreratzea Europako egonkortasun politiko eta ekonomikoaren aurkako interesek hauspotu dutela, bai eta zenbait kasutan finantzatu ere.

Baina kanpoko mehatxu hau dagoela dakigun arren, gertatutakoaren analisian ezin ditugu barneko akatsak ahaztu: Europa osoan, osasun-hesien bitartez eman den erantzun politikoak ez du funtzionatu; eta ez du funtzionatu ez delako garrantzia osoko elementu batekin batera etorri: Europako klase ertainaren ongizatea.

Egia dena da, eztabaida politikoa osasun-hesiak erakundeetan ezartzearen inguruan ardaztu den bitartean, azken urteetan eta Lehman Brothers-en krisialdiaren ondoren, aberatsak aberatsagoak direla Europan, txirotasuna hedatu egin dela eta klase ertainak orain dela 15 urte baino zailtasun handiagoak dituela gaur egun bere egunerokoan.

Ultraeskuinak hautestontzietan aurrera egiten eman dituen 15 urte berberak.

Horregatik, totalitarioei min gehien ematen dien tokian irabazteko beharra aldarrikatzen dugu Geroa Bain: hautestontzietan

Eta haiei aurre egiten zaien modurik hoberenean gainera: gobernu egonkorrak eraikiz, aberastasuna birbanatzeko politika publikoak jarduteko gai direnak eta gizarte osoaren ongizatea errealitate egiten dutenak.

Ongizate Estatua sendotuz defendatzen da ere, eta bereziki, demokrazia.

2023ko hauteskunde orokorretan bizi genuen jada: Alderdi Popularraren Gobernua Vox-ekin edo formakuntza aurrerakoi eta plurinazional guztien topaketa PSOEren inguruan

Hala ere, orduan gertatutakoa gainditua eta ultraeskuinaren aurreratzea ekiditetik urrun, azken lau urteek Vox-en sendotzea utzi digute.

Zerk egin du huts?

Argi dago gauzak ez direla ongi egin. “Boto erabilgarria” deitzen dugun horrek ez du kudeaketa erabilgarri baten erantzuna eduki Ongizate Estatuaren sendotzeari dagokionez eta, hortaz, demokraziaren sendotzeari dagokionez.

Horregatik, datozen hauteskundeetan demokrazia defendatzea dagokigu, eta Nafarroatik defendatzea, geure burua defendatuz horrela.

# 2.

# NAFARROA, SUBJETU POLITIKO

Gaur Nafarroako Gobernua sostengatzen duten lau formakuntzei proposamena luzatu zien Geroa Baik hauteskunde hauetara elkarrekin aurkezteko, bai Kongresura, bai eta Senatura ere.

Ultraeskuina geldiarazteko ahalik eta hauteskunde-emaitzarik handiena bilatzea zen helburua, Nafarroatik baita ere, baina gure aniztasunaren eta aldarrikapenen errealitatea erakutsiko lukeen ordezkaritza bat bilatuz gainera.

Ultraeskuina geldiarazteko nafar zerrenda bat, azkenean Madrilen geldiarazi zutena, eta bazterketaren bitartez eginez gainera…

Onartezina. Komunitate hau gobernatzeko gai bagara, urtez urte aurrekontuak aurrera ateratzeko ardurarekin, Madrilgo interes edo beldurrengatik bazterkeriak onartu ditzakegu?

Geroa Baik ez du horrelakorik inoiz onartu eta ez du onartuko. Alderantziz, hamarkadetan zehar gure komunitatea objektu politiko hutsera mugatu nahi izan dutenen aurrean, Geroa Baik Nafarroaren eta bere herritarren subjektu politiko izaeraren errealitatea aldarrikatu du.

Horregatik ez dugu Madrildik agindutako bazterketarik onartzen.

Atal honek “Nafarroa Estatu-arazo” garaietara garamatza berriro… baina salbuespen batekin: Estatuari faktura ordaintzea dagokionean.

Gaur egun, bipartidismoaren aldetik betiko zigortua izaten jarraitzen baitu Nafarroak.

Bipartidismoak zigortua azpiegituretan, agerikoa baita bai PPk bai eta PSOEk ere Prestazio Handiko trenbide sarea Euskal Yrekin lotzeko, Ezkiotik egitea defendatzen dutela, baina bi alderdiek, Gobernuan daudenean, beste ibilbide merkeago baten alde egiten dutela, eta nafarron interesentzako baldintza okerragoen alde…

Nafarroa, bipartidismoak zigortua Foruaren Hobekuntzak ezartzen duen aldebikotasuna onartzen ez denean, edo bipartidismoak zigortua, Sekretu Ofizialen Lege frankista ezartzen jarraitzen denean ahaztura mantentzeko.

Horregatik, datorren azaroaren 29an Geroa Bai hautestontzietan egongo da Nafarroa subjektu politiko moduan defendatzeko:

- trenbide azpiegitura edo lursail ureztatuen alorretan, Estuak gure lurraldean ahazten dituen betebeharrak bete daitezela eskatzen duen subjektu.

-transferentzia alorrean Foruaren Hobekuntzak dioena bete dadila eskatzen duen subjektu.

-Foru eskumenengan erabakitzen duten Europako erakundeetan, hots Ecofin-en, Nafarroako Gobernuak ahots eta botodun ordezkaritza eskatzen duen subjektu

-Sekretu Ofizialen Legearen erreformarekin, eragindako minaren aitortza eskatzen duen subjektu, Mikel Zabalzarena bezalako kasuak argitzea ahalbidetzeko, beste alde batera begiratzeko erabakia hartu duten PPren eta PSOEren ondoz ondoko gobernuen aurrean.

# 3.

# GAMAZADA BERRI BAT?

Egia esatearren, espainiar Senaturako zerrenda bateratu batek Nafarroako ordezkaritzaren gehiengoa alde aurrerakoi eta anitzera eramango luke argi eta garbi, eta horrekin, Goi Ganberan gehiengo oso eta, agian, kualifikatu baten aukerak murriztu ere.

Zergatik da hau garrantzitsua? Konstituzioaren balizko erreforma baten aurrean, horren aurkako Senatuko gehiengo batek hori geldiarazi dezakeelako.

Honakoa oso garrantzitsua da datorren azaroaren 29tik aurrera abiatuko den legegintzaldiaren aurrean, Vox-ek jada iragarri baitu Alderdi Popularrari Gobernua emateko bere baldintzetako bat horixe izango dela: Konstituzioaren erreforma bat, beste gai batzuen artean, eskubide historikoen aitortza eta horrek esan nahi duen guztia ezabatzeko.

Foruaren Hobekuntza zalantzan jartzeaz gain, gure autogobernuaren beste ardatzetako batzuk kolokan jarri nahi dituzte, Hitzarmen Ekonomikoa adibidez, hori baliogabetzeko arriskua nabarmena izanik.

XIX mende amaieran, orduan Espainiako Ogasun Ministro zen Gamazok, Aurrekontu Legearen erreforma baten bitartez egin nahi izan zuen. Gaur, Vox-ek, Hitzarmena eta Itun Ekonomikoa baliogabetuz egin nahi du zuzenean.

Ultraeskuinekoek horrela aldarrikatu dute beti haien hauteskunde programa bakoitzean. Hauek dira ziurrekin Alderdi Popularraren bidelagunak -eta, hortaz, UPNrenak ere- Moncloara iristeko.

Horregatik, datorren azaroaren 29an Geroa Baik Hitzarmen Ekonomikoaren mantentzea defendatuko du hautestontzietan, autogobernuaren oinarrizko tresna den heinean, ezkutuko gamazadak babesten dituztenen aurrean.

# 4.

# ONGIZATE ESTATUA DEFENDATU, DEMOKRAZIA DEFENDATU

2023ko uztaileko hauteskundeen ondoren, Estatu osoko herritarrek aukera berria eman zioten ezkerreko koalizio gobernu bati, Estatua ulertzeko jarrera pluraletan oinarritu zen gobernu bati.

Hala eta guztiz ere, eskuineko eta ultraeskuineko koalizio gobernu baten arriskua areagotu egin da gaur, azken aukera honen sendotze argiarekin, azken hilabeteetan inkestek agertu duten moduan. Gaur, Espainiako bi alderdi nagusiek -PP eta PSOE- izango duten tokia edozein izanik ere, inork ez du zalantzan jartzen PP eta Vox-en eserlekuen baturak ultraeskuinaren gobernu bat ahalbidetuko dutela Vox Exekutiboan sartzen bada.

2023an jada aurreratze hau ikusten bazen, zerk egin du huts azken 3 urte hauetan?

Eta ez dago aitzakiarik: kudeaketak egin du huts.

Ukaezina da ustelkeria kasuek herritarren ondoeza azaltzen dutela neurri handi batean; ahaztu gabe auzitegietan dabiltzan auzien joan-etorriak herritarren ondoezekin edo lawfare deialdiekin ere elikatu direla; eta noski, trenbideetako ezbeharrak, horietan hamarnaka hildakoen min deskribaezina ikaratzeko modukoa delarik, trenbideen mantentze-lanen eta segurtasunaren gaineko zalantzak agertzen direnean…

Honek guztiak ere ongi azaltzen du nola iritsi garen honaino, baina arduragabekeria politikoa izango litzateke ez aitortzea Gobernu-kudeaketaren azken hiru urteetan modu nabarmenean huts egin duena ez aitortzea.

Ongizate Estatua sendotzeko kudeaketa, klase ertaina ahalduntzeko kudeaketa, demokrazia sendotzen duen kudeaketa politiko egokia.

Eta horrela, Sánchez Gobernuaren legegintzaldi hau aurrekontu bakar bat ere onartu gabe amaitzen da. Porrota ezin zaio egotzi aurrekontu orokorrak babesten ez dituenari, aurrekontuak aurkezteko ardura duenak bere lana egin ez badu. Eta ez du egin: legegintzaldi honetan Gobernuak ez du aurrekontu proiektu bakar bat ere aurkeztu, lau aukera eduki arren azken urriaren 5ean hauteskunde aurreratuak deitu baino lehen. 2023ko aurrekontuak luzaturik mantentzen ditu.

Etxeko ekonomiari dagokionez, aitortu beharreko aurrerapauso garrantzitsuak egon dira, hala nola Lanbide arteko Gutxieneko Soldata igotzea, baina bataz besteko soldatek geldirik jarraitzen dute etengabeko inflazioa egoeran dagoen ekonomia baten aurrean.

Klase ertaina txirotu egin da, eta bere bizi baldintzak are eta latzago nabaritzen ditu etxebizitzaren salneurriaren gorakadaren aurrean. Eta egia da etxebizitza politikak Autonomia Erkidegoekin partekaturiko politikak direla, baina Gobernu Zentralaren ekimenek ez dute jendearen errealitatean oihartzunik eduki, hainbesteraino izanik hori, legegintzaldiaren amaiera aurreratu egin dela…

Honek guztiak ezker anitzaren aldetik erantzuna behar du datozen lau urteetan, eta hori da Geroa Bairen konpromisoa: Ongizate Estatuaren defentsa eta datozen murrizketen aurrean, zerbitzu publikoen defentsa.

Gure komunitateari dagokionez, hainbat gai geratu dira egin gabe gure egungo errealitateari dagokionez, baina baita ere datozen belaunaldien etorkizunari dagokionez ere; hauteskunde deialdia egin den unean itxi gabe daude oraindik gure komunitatearentzako garrantzia berezia duten gaiak, hala nola Nafarroaren posizionamendua 2030 urterako planifikazio elektrikoan, Nafarroa Euskal Y-

rekin trenbidez lotzeko zehaztapena, Nafarroako lursail ureztagarriekin konpromisoa edo beken eskumenaren transferentzia.

Era berean, gure komunitateak arautzen dituen gaiei buruz EBrekin egiten diren bileretan Nafarroa legez eta modu arautuan egoteko aldarrikapena, Geroa Baik Gorte Nagusietan duen konpromisoa da, datorren azaroaren 29ko hauteskundeen ondoren ere.

# 5.

# ANIZTASUNA, BIZIKIDETZAREN ARDATZA

Geroa Baik beti defendatu du aniztasuna Nafarroan bizikidetzaren ardatz moduan. Eta agerikoa da, gure komunitatean agindu dutenen interesen erruz aniztasun hori hamarkadetan zehar ezkutatu ondoren, azken hamabi urteetan egoera aldatu egin dela.

Baina bizikidetzaren alorrean atzerapausoak egotearen arriskua oso nabarmena da orain Estatuan: genero indarkeriaren negazionismoa, LGTBI kolektiboarentzako azken urteetan konkistaturiko eskubide zibilei mespretxua, edo memoria historiko alorrean lortutakoa suntsitzeko mehatxuak…

Honakoa, eta Estatuaren errealitate plurinazionalaren aitortzari mespretxu esplizitua, hizkuntza ofizialei mehatxu bereziarekin, arrazoi nahikoak dira “Una, Grande y Libre” esaldiaren nostalgikoek nahi duten jazarpena eta enfrentamendu maila nolakoa izango diren susmatzeko...

Horregatik, ultraeskuina geldiarazteko ezin genion ezberdinen arteko batasunari uko egin lehen, eta orain ezin diegu uko egin geroz eta aukera gehiago dituen Gobernu bati aurre egiteko konpromisoei.

Ultraeskuinari aurre egitea, Sekretu Ofizialen Legea bezalako monumentu frankistei aurre egitea delako.

Ultraeskuinari aurre egitea, LGTBI kolektiboarentzako azken urteetan konkistaturiko eskubide zibilak indarrean mantentzea delako.

Tratu txarren biktima diren emakumeak babesteko politika publikoak sendotuz egin behar zaio aurre ultraeskuinari.

Ultraeskuinari aurre egitea arrera-lurralde izaten jarraitzea da, klima aldaketaren aurrean politikak sustatzea edo memoria politikak sendotzea.

Horregatik guztiagatik, datorren azaroaren 29an eman botoa: ultraeskuinari hautestontzietan egiten zaio aurre. Datorren azaroaren 29an Nafarroa defendatu eta zu zeu defendatu: bozkatu Geroa Bai.